

● 1. artikulua: AIZKARDIKO IBILALDIA

AIZKARDI Mendizale Elkartek antolatutako zeharkaldi hau mendian egindako ibilbide herrikoa da, eta kirol- eta kultur-arloko helburuak ditu: mendizaletasuna bultzatzea eta Villabona inguruko leku eta ibilbideak erakustea, betiere natura erabat errespetatuz.

Bi ibilbide prestatuko dira; bata 25. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria izango dena, eta bestea motzagoa, ibilbide erdiko. Ibilbide luzean parte hartzeko 14 urte beteak izatea derigorrezkoa da.

● 2. artikulua: ERANTZUKIZUNAK

Parte-hartzaileek garbi izan behar dute zeharkaldi hau mendi-ibilbide bat dela, eta kirol-jarduera horren arriskuak dituela. AIZKARDI Mendi Elkartek ez du bere gain hartzen parte-hartzaileei ibilbidean edo ibilbidearen ondorioz gertatutako istripuen, galdutako objektuen edo izandako min eta lesioen ardura. Parte-hartzaileek uko egiten diote elkartearen kontra erreklamazioak jartzeari edo indemnizazioak eskatzeari. Mendi-jarduera hau edo gainerakoak egiteko federatuta egotea gomendatzen da.

Elkartek jarduera hau bertan behera uzteko edo atzeratzeko eskubidea du, eguraldia edo bestelako arrazoiak tarteko.

● 3. artikulua: IBILBIDEA

Aizkardiko 57. ibilaldia 2026ko martxoaren 29an egingo da, irteera eta helmuga Villabonan izango direlarik. Ibilbide luzeak 43 Km inguru ditu, Villabona (61m) - Lapurtxulo - Onddo (780m) - Azketa (832m) - Leuneta (880m) - Abadekurutz (984m) - Mandoegi (1.045m) - Kondizatzeko lepoa - Leitxaran - Gorosmendi - Mugaga - Urdelar (858m) - Belabieta - Meaka - Otsabi - Villabona (61m) - Villabona-tik igarotzen delarik, eta 2.400 metroko desnibel gehitua du, HAMAR ORDU TA ERDI inguruan burutzen dena.

Luzera erdiko ibilbideak berriz, 24 Km inguruko luzera du, Villabona (61m) - Otita (Leitxaran) - Lapurtxulo - Astabizkar (575m) - Amasola (Leitxaran) - Praxku - Kanal Haundia - Oindollar (425m) - Arlagats - Villabona (61m) - Villabona-tik igarotzen delarik, eta 1200 metro inguruko desnibel gehitua du, SEI ordu inguruan burutzen dena.

● 4. artikulua: INFORMAZIOA / IZEN-EMATEA

Informazioa (Martxoaren 1-etik aurrera):

- Telefonoa (lanegunetan 20etatik 21:30etara): 649717182

- email: ibilaldia@aizkardi.com

Izen-ematea:

Izen-ematea DOAKO da, Martxoaren 1etik aurrera egin ahal izango da eta ondoren azaltzen diren bideak erabiliz egin daiteke:

- Interneteko helbidea: <http://www.zirkuitua.com>

- AIZKARDI Mendi Elkartaren lokalean, ostegunetan 20:00etatik 21:30etara

- Egunean bertan, martxoak 29, izen emateak ez dira onartuko.

Izena emateko behar diren datuak:

- EHNA edo DNI,

- izena eta bi abizen,

- autatutako ibilbidea, federatuta zauden ala ez, eta klubaren

izena ere bai.

Datu hauen jabeari bere datu pertsonalak Euskal Mendizale Federazioan dagokion fitxategian txertatuko direla jakinarazi zaio, eta Euskal Mendizale Federazioak parte hartzen duen kirol proben berri emateko ekintzetan erabili ahal izango dira, 57. Aizkardiko Ibilaldiko parte-hartzaileen zerrenda ere bertako web orrialdean azalduko delarik. Baimen hori baliogabetu nahi izanez gero, nahikoa da honako helbide honetara jotzea, igorpena eta harrera egiaztatzeak aukera ematen duen edozein bide erabiliz: Euskal Mendizale Federazioa . Paseo de Anoeta, nº7 - 20014 Donostia-San Sebastián, edo Aizkardi Mendizale Elkartea. Apdo.75. 20150-Villabona.

● 5. artikulua: ZERBITZUAK

Elkartek lokal bat prestatuko du koltxonetekin, bezperan bertan lo egin nahi duten guzientzat. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek, antolakuntzari jakinarazi beharko diote telefonoz edo e-mailez.

Kontsigna zerbitzua izango da aldatzeko arropadun poltsa bat bertan utzi nahi duenentzat.

Zeharkaldia bukatzean, parte-hartzaileek udal-dutxak erabili ahal izango dituzte, Villabonako Olaederra Kiroldegian.

● 6. artikulua: IRTEERA

Zeharkaldi luzea goizeko SEI TERDIETAN hasiko da, eta motza ZORTZIETAN. Irteeran txartel pertsonalizatua emango zaio parte-hartzaile bakoitzari, izen-ematearen hurrenkeraren arabera zenbakiarekin. Era mailakatu emango da irteera, gutxi gorabehera 50 parte-hartzaile minutuko.

● 7. artikulua: KONTROLAK

Parte-hartzaileek goian azalduko ibilbidea egin behar dute, eta demagor igaro behar dute ezarritako kontroletatik. Kontrol horietan marxa-txartela erakutsi beharko dute, zigilua jartzeko. Kontrolak txartelean adierazitako gutxieneko eta gehieneko denbora-tartean egongo dira zabalik.

● 8. artikulua: BALIZAK

Ibilbideak plastikozko zinten bidez markatuta egongo dira. Antolaketa kideek azken parte-hartzailearen atzetik egingo dute ibilbidea, zintak jasoz eta ibilbideari amaiera emanez.

● 9. artikulua: HORNIDURA

Parte-hartzaileei jarduera hau egiteko beharrezko diren elikagai eta edariak ekartzea gomendatzen zaie. Antolaketa kideek ura eta gutxieneko hornidura jarriko dute Lapurtxulo, Etzela, Leitxaran eta Mugaga kontroletan. Ibilbidean dauden iturri naturalak: Aitzola (km 15), Urepel (km 22) eta Mugaga (km 36).

● 10. artikulua: ERRETIRATZEA

Ibilbidean zehar erretiratzen diren parte-hartzaileek antolaketa kideei eman behar diete txartela, edo bestela 649.71.71.82 telefono-zenbakian jakinarazi. Erretiratze punturik egokienak Leitxaran eta Gorosmendi dira.

● 11. artikulua: BUKAERA

Ibilbidea egiten duten parte-hartzaileei, marxa gehienez HAMAIIKA ORDU (Ibilaldi Luzea) eta ZAZPI (Ibilaldi Motza) orduren buruan egin duela ziurtatzen duen marxa-txartela erakutsiz gero, diploma banatuko zaie helmugan.

Arratsaldeko BOSTERDIETAN, beti bezala, mendiko materiala zozketatuko da proba amaitu duten eta bertan aurkitzen diren parte-hartzaileen artean

57. aizkardiko ibilaldia

2026 Martxoak 29



IBILALDI LUZEA

Luzera 46 Km
Desnibela 2700 m
Iraupena 10:30 ordu
Irteera Ordua 6:30 ean

IBILALDI MOTZA

Luzera 24 Km
Desnibela 1200 m
Iraupena 6 ordu
Irteera Ordua ... 8:00 etan

25. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria




MENDI LASTERKETA EZ DENEZ ... IBIL ZAITEZ OINEZ !!!

www.aizkardi.com

Km	LEKUA	ALT	DESNI. +	DESNI. -	min	ORDUA	max
0,0	K-1 : VILLABONA	60	0	0	6:30	6:30	6:30
3,1	LASTUR Atsedenlekua	170	170	55	7:01	7:08	7:15
4,9	TXERTOTA –San Esteban auzoa–	185	260	125	7:19	7:30	7:40
5,9	OTIETA Parkea	65	265	250	7:30	7:45	7:55
7,8	IDOIAGA	349	535	240	7:48	8:10	8:25
9,8	K-2 : LAPURTXULO	566	715	260	8:08	8:32	8:50
11,3	ONDDOko gaina	780	980	270	8:23	8:50	9:15
11,8	OTSOLEPOko lepoa	670	980	350	8:28	8:56	9:20
13,5	PELOTASOROkko gaina	680	1050	410	8:45	9:17	9:43
15,0	AITZOLEko ITURRIA	737	1120	420	9:00	9:35	10:05
15,9	ETZELAkko kaskoa	813	1200	425	9:09	9:48	10:18
16,6	K-3 : ETZELAkko LEPOA	780	1200	465	9:16	9:55	10:28
17,4	LEUNETAkko gaina	882	1320	465	9:24	10:06	10:39
19,7	ABADEKURUTZeko gaina	984	1475	527	9:47	10:34	11:13
21,1	MANDOEGIkko gaina	1045	1600	590	10:01	10:51	11:32
22,6	UREPELEko gaina	1055	1710	685	10:16	11:10	11:55
23,3	KONDIZATZEko lepoa	895	1710	836	10:23	11:19	12:05
24,1	ALTZEGIkko gaina	1010	1820	836	10:31	11:29	12:16
24,8	INTXUSUko gaina	945	1830	920	10:38	11:37	12:26
28,5	K-4 : PLAZAOLA - LEITZARAN	415	1840	1430	11:15	12:25	13:20
31,8	IPULIÑOko gaina	925	2350	1450	11:48	13:05	14:06
32,9	OLDIZGAIN gaina	795	2350	1615	11:59	13:17	14:22
33,7	GOROSMENDIkko lepoa	665	2350	1735	12:07	13:27	14:33
35,9	K-5 : MUGAGAkko LEPOA	685	2416	1802	12:29	13:55	15:05
37,2	URDELAREko gaina	858	2586	1810	12:42	14:11	15:24
38,1	BELABIETA TXIKIkko lepoa	758	2585	1925	12:51	14:22	15:37
39,5	IBIAIngo langa	615	2590	2045	13:05	14:40	15:57
40,1	BELABIETA	675	2656	2051	13:11	14:47	16:06
41,1	MEAKAkko gurutzea	535	2660	2195	13:21	15:00	16:20
42,2	ARIZMENDIkko gaina	492	2680	2260	13:32	15:13	16:35
44,3	KOMIZAReko Atsedenlekua	190	2690	2550	13:53	15:39	17:06
46,0	K-6 : VILLABONA	60	2700	2700	14:10	16:00	17:30

Ibilbide LUZEA



Ibilbide MOTZA

Km	LEKUA	ALT	DESNI. +	DESNI. -	min	ORDUA	max
0,0	K-1 : VILLABONA	60	0	0	8:00	8:00	8:10
3,1	LASTUR Atsedenlekua	170	170	55	8:30	8:35	9:00
3,8	MANDABIETAtako bidegurutzea	220	250	61	8:40	8:50	9:20
4,9	TXERTOTA –San Esteban auzoa–	185	260	125	8:45	8:55	9:30
5,9	OTIETA Parkea	65	265	250	8:55	9:10	9:45
8,3	MUNTTO bidegurutzea	470	620	260	9:25	9:50	10:35
9,8	K-2 : LAPURTXULO	566	715	260	9:40	10:05	11:00
10,3	ASTABIZKARKo gaina	575	740	280	9:45	10:12	11:10
13,4	Leizaran ibaia	145	770	650	10:15	10:50	12:00
13,9	Amasola	135	770	670	10:15	11:00	12:10
15,2	KANAL HANDIA Praxkuren borda	300	950	690	10:35	11:15	12:35
16,9	K-3 : MAKINETXE	300	1010	760	10:50	11:40	13:00
19,4	OINDDOLARKo gaina	436	1150	820	11:15	12:10	13:50
20,4	Arlagats	310	1175	920	11:25	12:25	14:05
21,8	KOMIZAR Atsedenlekua	190	1190	1050	11:35	12:35	14:25
24,0	K-4 : VILLABONA	60	1200	1200	11:50	13:00	14:50